

2020/00000225 DEKRETUA

Gaurko datarekin Tokiko garapena, turismoa eta merkataritzak honako Dekretu hau eman du:

**DEKRETUA:** Hernanin, 2020/02/17,

2019ko martxoaren 25eko Gobernu Batzarrek, gaia aztertu ondoren eta martxoaren 14ean Tokiko Garapen Batzordeak emandako irizpena kontuan izanik, **Berriak-Udala diru-laguntza hitzarmena 2019** onartzea erabaki zuen aho batez.

BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA partidako aurrekontua handitu egin zenez (2018ko soberakinen kontura) hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urtero 27.000 euroko dirulaguntza ematea proposatu zen aipatutako hitzarmenean.

Hori dela eta, **Berriak-Udala diru-laguntza hitzarmena 2019 Osoko Bilkurak** onartzea proposatu zen. Hau da, "Berriak" Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartearentzat hitzarmena indarrean dagoen bitartean, urtero 27.000 euroko dirulaguntza izendatzea.

Toki Garapenerako batzorde informatzaileak 2019ko azaroaren 14ean emandako irizpena kontuan hartuta:

2019ko azaroaren 26ean egindako bilkuran, **Osoko Bilkurak**, aho batez ERABAKI zuen "Berriak" Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartearentzat 27.000 € izendatzea (hitzarmena indarrean dagoen bitartean). Kontusaila: 1 02.481.01.241.00 2019 BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA (4552)

Hitzarmenak dionaren arabera:

\* Hitzarmena indarrean egongo da: sinatzen denetik, gehienez ere 4 urte (2019, 2020, 2021 eta 2022). 4 urte horiek igaro ondoren, hurrengo 4 urteetan urtez urte berrituko da bi aldeak ados egonez gero.

\* Diru-laguntzaren %60 (16.200,00 euro) aurrerapen gisa ordainduko da. Diru-laguntzaren %40 (10.800,00 euro) justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen (edo eskuordetza) ebazpen bidez.

Hori dela eta, eman zaizkidan ahalmenak baliatuaz, honako hau

**ERABAKI DUT:**

- Berriak merkataria eta ostalari elkarteari, 2020ko dirulaguntzaren % 60 aurrerapen gisa ordaintzea (16.200,00 euro).
- Udalaren diru partida honen bidez ordainduko da: 1 02.481.01.431.00 2020 (4552) BERRIAK ELKARTEA-HITZARMENA

Maria Francisca Iburguren Echeverria Tokiko garapena, turismoa eta merkataritzazinegotzi delegatuak agindu eta sinatu du, eta nik, Nekane Orbegozo Zurutuza udal idazkariordeanazenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: Tokiko garapena, turismoa eta merkataritza zinegotzi delegatua. Sinatua: udal idazkariordea

udal idazkariordea  
2020/02/17

